

## Neurriz gain egindako ahalegina

*Euskaldunon Egunkaria, 1992-03-31: 2.*

Neurrian dago birtutearen giltzarria. Neurria ematen ez duten ekintzak, porrotean geratzen dira, neurriz gain egiten direnak, soberakin; eta erdigune egoki hori lortzea zein zaila den! Burutazio hau sortu zitzaidan herenegun irratiko mahainguru batetan esaten zirenak entzuten. Gaia, euskara zen, eta norbaitek esan zuen, fede onez noski, herri honetan euskararen alde egiten ari garen lana neurriz gainekoa zela; desproporzionatua, alegia; zeren eta, 500.000 (sic) hiztun dituen alde jarri diren medioak, batetik, eta ardurak eta antsiak, bestetik, gehiegizkoak direla. Hau, ulertuko zuen honez gero edozeinek, PSE-PSOEkoen argudioa da, baina ez genuen alderdi honetako bategandik entzun!, hau da larria dena, baizik eta euskal eragile ofizial eta ezagun baten ahotik! Pentsatzen jarri ninduen honek, zeren eta gure herrian nabaritzen hasi garen desarme morala uste baino barrurago sartzen ari zaigula. Euskarak bizi duen larrialdi honetan, bizirik irteteko behar dituen laguntzak oso urriak direla pentsatzen dugunok ez gabiltza buruz ondo, alarmista batzuk gara!, eta eskola-ikastolaren giroan, EGUNKARIArean, alfabetatze mailan, kaleko mintzairaren eskasi gorriak ez du orain arte lortutakoaren gain arretarik merezi! Bitartean, inguruko erderak lasai doaz aurrera, inertzia hutsez!, ez du inolako bultzadarik behar, eta halere mundu osoa estaliko dituzten satellite bitarteko irratitelebisioa lortzeko lanetan aurrera doaz... Egoera honetan, geureak egin duela pentsatzea errazago egiten zaigu nahi duguna "neurriz gain" dagoela pentsatzea baino. Halere bada gure kultur eragileen artean alderantziz pentsatzen duenik! Jakin nahi genuke zergatik. Lasaituko ginduzke.